# 1.983

# LEITZA/83

## Tiburcio Donearen Festak
## Abuztuak 10-15



# PLAZAOLA

ALDIZKARI LEITZARRA 5zk.

## Barrengo orrialdetan

C.D. AVRRERA K.E.

artadi txaranga

LEITZA

DAZKIDEEK,
DANTZARIK eta
TXARANGAK

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Herritar eta bisitari guztiei

SALA DE FIESTAS
DISCOTECA

5.400

DISCOTHEQUE

BOITE

IZAR BERRI
LEIZA

Egun hauetan irekita 2tatik aurrera
Abierto a partir de las 2 de la madrugada.

EGUNAK **11** y **12**

actuación de **SABIRON** taldearekin
Egunero Videoan, dianak, enzierroak, eta abar
Todos los dias en VIDEO se proyectaran las dianas encierros y otros espectaculos

**IZAR-BERRI DANTZALEKUAK**

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Zuzendarintza
Dirección

C. D. AURRERA
TELEFONO 948 - 510187
LEITZA (NAFARROA)

10.800

**HAU DA ZURE ETXEA**

**CAJA LABORAL**



Caja Laboral Popular, Sociedad Cooperativa de Crédito creada en 1960, es la promotora del conocido Grupo Cooperativo que en solamente 22 años ha dado a luz 160 entidades de este signo social, bajo fórmulas de enseñanza, agrícolas, de servicio, etc. además de 88 cooperativas industriales.

Caja Laboral, entidad motriz, cuenta con 82.000 millones de pesetas de Recursos Acreedores y 550.000 clientes.

Con Sede Central instalada en Mondragón (Guipúzcoa), en 1983 cuenta con 138 Oficinas abiertas en todas las localidades importantes de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya.

CAJA LABORAL POPVLAR
LAN KIDE AVRREZKIA
Euskadiko Kutxa

Lankide Aurrezkia, Kredito Elkarte Kooperatibo, 1960. urtean sortua, da Talde Kooperatibo izenarekin ezagutzen denaren eragilea Honek 22 urtetan bakarrik 160 erakunde sozial sortu ditu irakaskuntza, nekazaritza nahiz zerbitzu mailan, eta baita ere 88 industri-Kooperatiba.

Lankide Aurrezkiak, erakunde eraginkorra, dagoeneko baditu 82.000 milioi pezeta Hartzekodun Baliabidez eta 550.000 bezero.

Egoitza Nagusia Arrasaten (Gipuzkoa) duelarik, 1983an 138 Bulego ditu irekiak Araba,Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako hiri eta herri garrantzitsuetan.

# UDALETXEAREN AGURRA

Leitzako emakume eta gizasemeok:

Gure herriko pestak hastera goazenean Udaletxearen izenean herritar denoi, agur. Kanpotik etortzen zaretenoi, ongi etorri.

Guztiok alaitasunean eta pakean igaro ditzagula pestak.

Bai programa hontan dauden ekintzetan, nola ez dagoen kale giroan bai pestetan nola lanean, gure nortasunari zintzo eusten jakin dezagun.

UDALETXEKO BATZORDEAK



LEITZAKO UDALAK, AURRERA KIROL ELKARTEAREN LAGUNTZAZ 1983-ko abuztuaren 7,10,11,12,13,14 eta 15ean TIBURTZIO DONAREN ohoretan eratuko festen egitaraua.



Programa de los festejos organizados por el Ayuntamiento de Leiza, en colaboración con el C.D. Aurrera, en honor de su patrono San Tiburcio y que tendran lugar los dias 7,10,11,12, 13,14 y 15 de Agosto.

# UZTAILA 31

# «1983 FESTETAKO EGIRATUA

**IGANDEA**

Festetako egitaruren banaketa Leitzako gazteak ibiliko dira etxez–etxe soinu joaz eguerdiartean egiratua zabalduz eskean (bakar bakarrik eman deiteke dirua **kaxa itxita** dauken gazteari).

**Arratsaldeko 7–etan:** DANTZALDIA Herriko plazan.

**Gaueko 12–retan:** Amazabal pilotalekuan «AURRERAK» erarutako atxauren.
X Sariketa eta Dantzaldia «ZINTZOAK» taldearekin.

**Leihaketarako oinarriak:**
1.— Partaideek izena 12,45 ak baino lehenago eman beharko dute izena takillen.
2.— Partaideek desfile bat egin beharko dute juradoaren aurretik, Show edo antzekorik egitea beren eskuetan gelditzen delarik, Desfilea ordu bata edo 1, 15–etan inguruan izango da.
3.— Bi Sari izanen dira: apainketa eta Show edo antzerkia hoberenentzat.
4.— Leihaketa honen amargarren urtehurrena dela eta, partaide guztiek izanen dute bere saria.

## 31 DE JULIO, DOMINGO

Reparto de programas hasta el mediodía, los jóvenes con Txistu y acordeón recorren la villa (Se recuerda a todas las familias que únicamente se dará la **voluntad «dinero»** a quellos jóvenes que lleven la caja precintada).

**A las siete de la tarde:** bailables en la Plaza.

**A las 12:** en el Frontón Amazabal X concurso – Baile de disfraces amenizado por el conjunto músico–vocal «ZINTZOAK».

**Bases del concurso:**
1.— Los concursantes deberán inscribirse en taquilla antes de las 12,45.
2.— Los concursantes estarán obligados a realizar el desfile para el jurado, siendo la actuación o show voluntario, este desfile tendrá lugar entre la 1 y 1,15 horas.
3.— Habrá 2 clasificaciones. 1.º: para la mejor caracterización. 2.º: para la mejor actuación o show.
4.— Con motivo del 10.§ aniversario de este concurso todo participante será obsequiado con un regalo–sorpresa.





# ABUZTUAK
# 7



**IGANDEA, «UMEEN EGUNA»**

**Goizeko 8—retan:** Diana, txistulari taldeak joa.

**Goizeko 9—retan:** Zezenak plazan.

**Goizeko 10 t'erdietan:** Meza nagusia. Herrigizonak, umeak herriko jantzi bereziaz apainduta, ezpatadantzari eta txistulariekin batera joanen dira. «Umeen Abesbatzak» abestuko du.

Eguerdiko 11 t'erdietan: Ingurutxoa, umeek—dantzatua, 12—etan.
etan pilota partidua, eta ondoren: Damborrada, Leitzako umeek jotakoa eta atzetik buruandiak.

**Arratsaldeko 4 t'erdietan:** Ziklisten I Herriko Txapelketa—Gazteentzat Haritz Handik antolatua.

**Arratsaldeko 6—retan:** Umeen Zezen Pesta.

**Arratsaldeko 7—retan:** Aurrerak eratututako umeen jokoak, ondoren: txokolatada.

**Arratsaldeko 8 t'erdietan:** musika atxaureekin eta Kalejirak «Artadi» txarangarekin.

**Gaueko 12—tan:** Amazabal Pilotalekuan: Dantzaldia «Nekez» Taldearekin.



## 7 DE AGOSTO DOMINGO, «DIA DEL NIÑO»

**A las 8:** Diana.

**A las 9:** Toros para los niños.

**A las 10,30:** Ingurutxo infantil, a continuación partido de pelota jugado por los chavales y a continuación tamborrada infantil y cabezudos.

**A las 4,30:** I trofeo local para ciclistas infantiles. Organiza: Haritz Handi.

**A las 6:** Festival taurino infantil.
A las 7: Juegos para niños, a continuación txokolatada.

**A las 8,30:** Baile de disfraces y kalejiras con la txaranga «Artadi».

**A las 12 de la noche:** En el frontón Amazabal Verbena con la Orquesta «Nekez».

# ABUZTUAK 10

**ASTEAZKENA «FESTA BEZPERA»**

**Arratsaldeko 6—retan:** Ezkila jotzea eta etxafuego botatzea festari hasera emanez.

Ondoren txistulariak eta «Artadi» txarangak Herrian Barrena kalejira joaz ibiliko dira.

**Arratsaldeko 7—retan:** Dantzaldia «Joselu Anaiak» taldearekin.

Gaueko 11 t'erdietan: Dantzaldia «Joselu Anaiak» taldearekin.

---

## 10 DE AGOSTO, MIERCOLES «VISPERA DE FIESTAS»

**A las 6 de la tarde:** Inicio oficial de las fiestas, con volteo de campanas y disparo del cohete.

A continuación kalejiras a cargo de los txistularis de la villa y la txaranga «Artadi» de Leiza.

**A las 7 de la tarde:** Bailables amenizados por el grupo «Joselu Anaiak».

**A las 11 y media de la noche:** Nueva actuación de «Joselu Anaiak».



# ABUZTUAK 11

**OSTEGUNA, «TIBURTZIO DONEAREN EGUNA»**

**Goizeko 7 t'erdietan:** Diana txistulari eta ondoren «Artadi» txarangak joa.

**Goizeko 9—etan:** Entzierroa eta ondoren zezenak plazan.

**Goizeko 10 t'erdietan:** Meza nagusia. Herrigizonak ezpatadantzari eta txistulari batera joanen dira.

Leitzako «Jeiki» Abesbatzak abestuko du.

Ondoren hamaiketakoa Udaletxean.

**Eguerdiko 12—etan:** Aurrera'ko ezpatadantzariak plazan.

**Eguerdiko 12 t'erdietan:** Pilota partidua plazan:

LUJAMBIO – IPARRA (NAFARROA)
GOIKOETXEA – ETXENAGUSIA (GIPUZKOA) Aurka

**Arratsaldeko 5 t'erdietan:** Zezenak plazan.

**Arratsaldeko 6 t'erdietan:** Herriko Dantzarientzat, dantza askatuaren «Arin—Arin eta Fandango» «Angel Alduntzin III Saria». Parte hartu nahi dutenak eman dezatela ordu erdi bat lehenago bere izena epaimahaian.

Bi maila izanen dira: 15 urte arte eta 15 urtetik aurrera.

**Arratsaldeko 7'30—retan:** Dantzaldia «Joselu Anaiak» Taldearekin.

**Arratsaldeko 7 t'erdietan:** Amazabal Pilotalekuan Eskularik Antolatutako Pilota partiduak.

**Gaueko 11 t'erdietan:** Dantzaldia «Joselu Anaiak» taldearekin.

Gauean: Izar—Berri diskotekan dantzaldia «Sabirón» taldearekin.





## 11 DE AGOSTO, JUEVES, «FESTIVIDAD DE SAN TIBURCIO»

**A las 7,30:** Diana a cargo de los txistularis y la txaranga «Artadi».

**A las 9:** Encierro y embolados en la Plaza.

**A las 10,30:** Misa mayor, cantada por la coral «Jeiki».

**A las 12:** Actuación de los Ezpatadantzaris del C.D. Aurrera.

**A las 12,30:** Partidos de pelota en la plaza.

**A las 5,30:** Festival taurino en la plaza.

**A las 6,30:** Concurso de baile al suelto para parejas de la localidad «III Memorial Angel Alduntzin».

**A las 7,3:** Bailables en la Plaza con el grupo «Joselu Anaiak».

**A las 7,30:** Partidos de pelota profesionales con pelotaris de Eskulari en el frontón Amazabal.

**A las 11,30:** Nueva actuación del grupo «Joselu Anaiak».

Sesión de noche: en la Discoteka Izar—Berri actuación del grupo SABIRON.



# ABUZTUAK 12



**OSTIRALA, «JUBILATUEN EGUNA»**

**Goizeko 7 t'erdietan:** Diana, txistulariak eta «Artaldi» txaranga joa.

**Goizeko 9 t'erdietan:** Entzierroa eta zezenak plazan.

**Eguerdiko 12—etan:** Igeritegian. Nafarroa—Gipuzkoan aurka.

**1—tan:** Plazan bertsolariak: Lasarte eta Azpillaga.

**Eguerdiko 2,30—etan:** Jubilatuentzat bazkarie. Non bazkaldu eta izenak non eman behar diren: Jarriko dira OHARRAK Tabernetan.

**Arratsaldeko 5,30— etan:** Zezenak plazan.

**Arratsaldeko 6,30—etan:** Aurrerako dantzariek eta gazte talde batek dantza batzuk dantzatuko dituzte. Ondoren bomba japonesak Umeentzat.

**Arratsaldeko 7,30—etan:** Dantzaldia «Diamantes» taldearekin.

**Arratsaldeko 7,30—etan:** Amazabal Pilotalekuan Eskularik antolatutako pilota partiduak.

**Gaueko 11,30 t'erdietan:** Dantzaldia «Diamantes» taldearekin.

**Gauean:** Izar Berri Diskotekan: Dantzaldia «Sabirón» taldearekin.



## 12 DE AGOSTO, VIERNES, «DIA DEL JUBILADO»

**A las 7,30:** Diana a cargo de los txistularis y la txaranga «Artadi».

**A las 9,30:** Encierro y vaquillas.

**A las 12:** Competición de Natación Navarra contra Guipúzcoa.

**A la 1:** En la plaza bertsolaris: Lasarte y Azpillaga.

**A las 2,30:** Comida de los jubilados. Donde será la comida y dónde hay que apuntarse se podrán unas notas en los Bares.

**A las 5,30:** Vaquillas.

**A las 6,30:** El grupo de Danzas del C.D. Aurrera y los dantzaris infantiles interpretarán diversos bailes juntos. A continuación bombas japonesas para los niños.

**A las 7,30:** En el frontón Amazabal: partidos de pelota profesional a cargo de Pelotaris de Eskulari.

**A las 11,30:** Bailables con el grupo «Los Diamantes».

**Sesión de noche:** En la discoteca Izar—Berri actuación del grupo «SABIRON».

# ABUZTUAK 13




**LARUMBATA**

**Goizeko 7 t'erdietan:** Diana txistulariak eta Artadi txarangak joa.

**Goizeko 9 t'erdietan:** Entzierroa eta zezenak plazan.

**Eguerdiko 11 t'erdietan:** S. Tiburtziotako Aizkolarien I Txapelketa.

**Eguerdiko 12—etan:** Aizkolariak plazan: Mendizabal, Arriya, Olasagasti eta Agiten aurka, 6 pruebetan: Harrijasotzen, harribultzan, aizkoran, trontza, txingak eta lasiterkan.

Ondoren Iñaki Perurena 235 K. burnie goratuko du esku bakarrakin, eta Mikel Saralegi harrijasotzen.

**Arratsaldeko 5 t'erdietan:** Zezenak plazan.

**Arratsaldeko 6 t'erdietan:** Ingurutxoa Leitzako dantzariak dantzatua.

**Arratsaldeko 7—etan:** Dantzaldia Diamantes taldearekin.

**Gaueko 11 t'erdietan:** Dantzaldia Diamantes taldearekin.

**Gaueko 1—etan:** Etxafuego artifizialak.



## 13 AGOSTO, SABADO

**A las 7,30:** Diana.

**A las 9,30:** Vaquillas y encierro.

**A las 11,30:** I trofeo San Tiburtzio de Aizkolaris (menores de 21 años).

**A las 12:** En la Plaza Festival de Deportes Vascos. Actuarán: Mendizabal, Arriya II contra Olasagasti y Agite y constarán de 6 pruebas: levantar piedra, arrastrar piedra, cortar troncos, cortar troncos con tronza, llevar txingas y correr 3 kilómetros.

A continuación Iñaki Perurena que levantará el hierro de 235 K. con una sola mano, y Mikel Saralegi levantando piedras.

**A las 5,30:** Vaquillas.

**A las 6,30:** Ingurutxo de Leiza a cargo de los dantzaris del C.D. Aurrera.

**A las 7:** Bailables con el grupo Los Diamantes.

**A las 11:** Bailables con el grupo Los Diamantes.

**A la 1:** Fuegos Artificiales.

# ABUZTUAK 14

**IGANDEA, «SOZIEDADEN EGUNA»**

**Goizeko 7,30–etan:** Diana.

**Goizeko 9,30–etan:** Entzierroa eta zezenak.

**Goizeko 11–etan:** Ziklisten XIII Aurrera K.E. txapelketa gazteentzat eta «Aurrera–haritz–handi» III Saria Leitzako afizionatuntzat.

**Goizeko 12–etan:** Kaldereten I Txapelketa 5 Soziedaden artean.

**Eguerdiko 2,30–etan:** Bazkarie nahi duen guztientzat.

**Arratsaldeko 5,30–etan:** Zezenak plazan.

**Arratsaldeko 6,30–etan:** Akademia Lumbrerasko Akordeolariak, ondoren bomba japonesak umeentzat.

**Arratsaldeko 7,30–etan:** Dantzaldia «Bries» taldearekin:

**Gaueko 11,30–etan:** Dantzaldia «Bries» taldearekin.

---

## 14 DE AGOSTO, DOMINGO, «DIA DE LAS SOCIEDADES»

**A las 7,30:** Diana.

**A las 9,30:** Encierro y vaquillas.

**A las 11:** Ciclismo: XIII Trofeo Aurrera, para principiantes, alevines e infantiles. y el III Trofeo Aurrera–Haritz–handi para corredores aficionados de Leiza. Estas dos pruebas están patrocinadas por AUTO–ESCUELA PLAZA y organizadas por AURRERA y HARITZ–HANDI.

**A las 12:** I concurso Intersociedades de Calderete, participan las Sociedades: Aurrera, Kornieta, Orain, Haritz–Handi y Mendigorria.

**A las 2,30:** Fallo del jurado y comida para todo el que quiera.

**A las 5,30:** Vaquillas.

**A las 6,30:** Recital de acordeón a cargo de la Academia Lumbreras, a continuación bombas japonesas para los niños.

**A las 7,30:** Bailables amenizados por el grupo «Los Bries».

**A las 11,30:** Bailables amenizados por el grupo «Los Bries».



# ABUZTUAK 15

**ASTELEHENA, «EZKONDUEN EGUNA»**

**Goizeko 7,30—etan:** Diana.

**Goizeko 9,30—etan:** Entzierroa eta zezenak.

**Eguerdiko 12—etan:** Pilota partiduak plazan:
Urkiola–Garziarena
Senar–Anduezaren aurka.
Ondoren: Bertsolariak: Amuriza eta Lopategi.

**Arratsaldeko 2,30—etan:** Aurrerako Bazkideen bazkaria (Bazkariako txartelak salgai Txoko tabernan, larunbata 13 arte egongo dira).

**Arratsaldeko 6—etan:** Ezkonduentzat entzierroa eta zezenak.

**Arratsaldeko 7—etan:** Ezkonduen ingurutxoa.

**Arratsaldeko 7,30—etan:** Dantzaldia Bries taldearekin.

**Gaueko 11,30—etan:** Dantzaldia Bries taldearekin.
Ondoren Kalejirak, festari Bukaera emanez.

---

## 15 DE AGOSTO, LUNES, «DIA DE LOS CASADOS Y DIA DEL CLUB»

**A las 7,30:** Diana.

**A las 9,30:** Encierros y vaquillas.

**A las 12:** Partidos de pelota y a continuación los bertsolaris Amuriza y Lopategi.

**A las 2,30:** Comida de los socios del C.D. Aurrera en los locales del Club amenizada por los bertsolaris Amuriza y Lopategi y la txaranga los Incansables (Venta de Tickets en el Bar Txoko hasta el sábado día 13).

**A las 6:** Encierro de casados y último festival taurino.

**A las 7:** Ingurutxo de los casados.

**A las 7,30:** Bailables con el grupo Los Bries.

**A las 11,30:** Bailables con el grupo Los Bries, siguiendo las Kalejiras hasta la madrugada, dando por finalizadas las Fiestas de San Tiburcio 1983.

---



**OHARRAK:** Datorren Festetan aurten ateratako argazkiekin lehiaketa bat eginen da. **Aukeratzen** den obena programako azalean jarriko da. Irabazleak diru sari bat izanen du.

**NOTA:** Para el programa del próximo año, se hará un concurso de fotografías en color correspondientes a las fiestas de este año. El ganador tendrá un premio en metálico y la foto será publicada en la portada del Programa de Fiestas 83.

---

**OHARRAK:** «Incansables» txarangak festa egun guztietan alaituko du gure herria eguerdian, arratsaldean eta gauean.
Udaletxeak, Abuztuaren 12—an jokatuko diren pilota—partidu profesionaletarako sarrerak jubilatu guziei opari egingo dizkie izenak, arakindegia tabernan eman behar dire Abuztua 9 bitartean eta Sarrerak Abuztuaren 11—ean banatuko dira taberna berean.

**NOTAS:** La txaranga «Los Incansables» alegrará nuestro pueblo todos los días. Al mediodía, tarde, noche y después del baile.
– El Ayuntamiento dará entradas a todos los jubilados para ver los partidos de pelota profesional del día 12 de Agosto. Los interesados deben dar sus nombres en el Bar ARAKINDEGIA antes del 9 de Agosto. Las entradas se distribuirán en el mismo bar el día 11.

# PLAZAOLA

## ALDIZKARI LEITZARRA

5zk.



*LAGUNTZAILEAK:*

*Mikela Astaitzagakoa*
*Astaitz*
*Rosa Sestorain*
*Patxi Perurena*
*M. Jesus Artxikonekoa*
*Miren Irurtia*
*Jose Miel Elosegi*
*Joan Mari Beloki*
*Ireber*

*ARGAZKIAK:*

*Ulazia*
*Mujika*
*Pitolari*

Datorren alean gehiago





# «EGUZKI ALDE» UDAL IGERITEGIAK —LEITZA—

«EGUZKI ALDE» UDAL IGERITEGIAK
Aurten irekita egongo dira UZTAILAN, ABUZTUAN eta IRAILAN

NORMAK

Igeritegietako batzordeak, bazkide eta publiko guztien onerako bertako zerbitzuak ahalik onenak izan daitezen, ondoko aranok ongi betetzea eskatzen du:

1.— Igeri tegiak goizeko 11etan ireki eta gaueko 9etan itxiko dira, tabernak 10ak arte iraunen duelarik.

2.— Jantzi eta erazteko beharrezkoa da aldagelen erabilera

3.— Koltxonetak, pilotak, urperako betaurretakoak, aletak, eta abar debekatuta daude.

4.— Janariak eta edariak tabernan eta terrazan bakarrik har daitezke.

5.— Denen osasunari dagokionez, ez dira animaliak onartuko instalazio hauetan.

6.— Era berean debekatuta geratzen dira umeen aulki eta kotxeak; saski edo kapazotan sar daitezke.

7.— Aldameneko lagunei trabarik ez egiteko, indarrean igeri ez egitea eta ez zipristintzea eskatzen da.

8.— Instalazioetako zuzendaritzak ez ditu hartzen dagokion zuhurtasunarik gabe igeritegiak erabiltzen dituen pertsonen kargua edo errespontsabilitatea. Guraso edo arduradunen gain geratzen da zazpi urtez beherako umeen errespontsabilitatea.

Arau guzti hauen helburua bakarra da; hau da, instalazioetako publiko guztien iranpena ahalik eta erosoena izan dadin lortzea.

OSO INTERESGARRIA
Beharrezkoa da jantzi–gelatik pasatzea. famili bakoitzak pertxa bat dauke.

DEBEKATUA DAGO
Arropakin eta zapatakin belarrera eta igeritegia joatea.

BONOAK
10 Egun segidoak
18 urtetik gorokoak 1.500 pzta.
17 urte azpitik 1.000 pzta.

20 Egun segidoak
18 urtetik gorokoak 2.000
17 urte azpitik 1.900

Tenporada guztia (3 ilebete)
Haundik 5.000 pzta.
Gazteak 3.500 pzta.

SOZIO BERRIAK
7–12 urtea 1.000 pzta. sarrera
13–17 urtea 2.000 pzta. sarrera
18tik gorokoak 4.000 pzta.

SOZIOAK
ILEKO KUOTA
18 urtetik gorakoantzat 2.50 pzta./illea
13 urtetik – 17 urtea 150 pzta./illea
7 urtetik – 12 urtea 100 pzta./illea





SOZIOAK–EZ DIENAK
EGUN NORMALEAN
17 urtetik gorakoantzat 250 pzta./eguna
17 urtetik azpikoantzat 150 pzta./eguna

LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAI EGUNAK
Haundik 350 pzta./eguna
Gazteak 250 pzta./eguna





# PISCINAS MUNICIPALES «EGUZKI ALDE» —LEIZA—





ABONOS
10 Días consecutivos
Mayores de 18 años 1.500 pts.
Menores de 17 años 1.000 pts.

20 Días consecutivos
Mayores de 18 años 2.800 pts.
Menores de 17 años 1.900 pts.

TEMPORADA 3 MESES
(Julio, Agosto, Septiembre)
Mayores de 18 años 5.000 pts.
Menores de 17 años 3.500 pts.

NUEVOS SOCIOS
De 7 a 12 años 1.000 pts. de entrada
De 13 a 17 años 2.000 pts. de entrada
De 18 en adelante 4.000 pts. de entrada
Todos estos precios sólo rigen para este año.

SOCIOS
CUOTA MENSUAL
Mayores de 18 años 250 pts./mes
Entre 13 y 17 años 150 pts./mes
entre 7 y 12 años 100pts./mes

NO SOCIOS
DIAS LABORABLES
Mayores de 18 años 250 pts./día
Menores de 17 años 150 pts./día

SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS
Mayores de 18 años 350 pts./día
Menores de 17 años 250 pts./día.

PISCINAS MUNICIPALES «EGUZKI ALDE»
Durante este año funcionará los meses de Julio, Agosto y Septiembre.

NORMAS

La comisión de Piscinas, en el deseo de que funcionen correctamente todos los servicios y en beneficio de todos los socios y público en general, recomienda el cumplimiento de las siguientes normas:

1.— Las piscinas permanecerán abiertas al público desde las 11 de la mañana hasta las 9 de la noche, continuando el servicio del bar hasta las 22 horas.

2.— Será obligatorio el uso de cabinas para desnudarse o vestirse.

3.— Se prohibe el uso de colchonetas, pelotas, gafas de buceo, aletas, etc.

4.— Las consumiciones y comidas podrán hacerse únicamente en el bar y en la terraza.

5.— Por razones de higiene, no se permitirá el acceso de animales de cualquier tipo a las instalaciones.

6.— De igual modo no se permitirá el acceso a las instalaciones de coches y sillas de niños, pudiendo hacerlo en capazos.

7.— Recomendamos no molestar a los usuarios nadando violentamente o golpeando y salpicando el agua.

8.— La dirección de las instalaciones no responde de los accidentes que puedan sobrevenir a los usuarios que utilicen las piscinas sin conocimientos de natación, o sin guardar la debida prudencia. Los padres o encargados se harán responsables de los usuarios menores de siete años.

Todas estas normas no tienen otra finalidad que el conseguir que la permanencia de todo el público en general sea lo más agradable posible.

MUY IMPORTANTE
Es obligatorio el paso por los vestuarios, cada familia tiene acceso a una percha.

Queda Prohibido
pisar el cesped con calzado e ir vestidos de calle a las piscinas.

# AURRERAKO DANTZARIEN EGOERA ARGITU NAHI GENIZUEKE



Hemen ari dira JO TA KE dantzan. Entzaiatzen ari dira. Orain, atsedenalditxo bat hartuko dute gurekin hitz egiteko, beraien gora beherak azaltzeko herriari.

**Idazkaritza. Nola hasi zineten?**

*Taldea.* Duela lau urte beste taldea desegin zenean hamabost hamasei urteko neska mutil batzu, ilusio haundiz hasi ginen zerbait berria prestatu nahian. Ordurarte, ingurutxoa eta ezpatadantza bakarrik dantzatzen bait zen.

*I.* **Zenbat hasi zineten?**

*T.* Ba, gutxi gora bera hemezortzi neska–mutilku artean osatu genuen taldea.

Gero jendearen beharrean aurkitu ginen eta pixkanaka pixkanaka beste batzu ere animatuz joan ziren. Orain, ogeitamar neska–mutilen artean osatzen digu taldea.

*I.* **Nork irakatsi dizkizue dantzak? Edo zeuren buruz ikasi dituzue.**



*T.* Ba, lehenbizi ingurutxoa Anttoniok irakatzi zigun eta ezpatadantza Etxebek.

Horrekin bakarrik ez ginen konformatzen, gure asmoa beste dantza batzu ikastea bait zen. Horrela, beste kanpoko dantzari batzurekin harremenetan jarri ginen.

Hasiera guk eman genuen ingurutxoa irakatsiaz ondorean haiek etorri ziren hona eta dantza hauek ikasi genituen:

- — Larrain dantza
- — Zinta dantza
- — Matelota
- — Berako makil dantza
- — Lesakako makil dantza
- — Axuri beltza
- — Lekeitio
- — Aurresku (agurra)

*I.* **Erabiltzen dituzuen arropak nondik lortzen dituzue? Edo zuenak dira?**

*T.* Aurrerari esker bi traje ezberdinak ditugu, eta baita ere; saskiak, zagiak, makilak, ezpatak, e.a.

Horiekin ez dugu nahiko, orduan beste dantzariei eskatzen dizkiegu, behar ditugun arropak.

*I.* **Ez duzue diru laguntzarik?**

*T.* Lehen Nafarroan bi aktuazio egiteagatik Diputazioak 30 mila pezeta bakoitzaz ematen zigun, baina gero Diputazioak erabaki bat hartu zuen eta zen: ikurrinarekin plazara ateratzen zenari laguntza hori kentzea.

Nafarroko dantzarien biltzarrean erabaki zen ikurrinarekin dantzatzea. Orduan talde guztiak Diputazioko laguntzarik gabe gelditu ginen.

Herriko udalak ez digu ezer eman inoiz.

*I.* **Beste dantza batzu ikasteko asmorik baduzue?**

*T.* Iruneko talde horrekin hitzegin dugu eta beste bi dantza ikasteko asmotan gabiltza. Ea pestetako ikasten ditugun!

*I.* **Entzun dut kanpora ere joaten zeratela. Non ibili zarete?**

*T.* Aurreneko ateraldia «Euskadiko Dantzari Eguna» 1980–6–1 Baionan izan zen.

Gero leku askotara iritsi gara, gure dantzak eskainiz. Gehien bat Euskal–Herrian zehar ibili gara: Iruñea, Gasteiz, Donibane Garazi, Baiona, Basauri, Tutera, eta beste herri askotan.

Euskal herritik kanpo bi aldiz Barzelonan izan gara. Behin han dagoen Nafarroko etxeak gonbidatuta. Orduan joan ginen «ARTADI» txarangakin eta txistulariakin 1982ko Urriak 9–10 eta 11an. Beste batetan berriz, Euskal Herria errepresentatuz «Makil Dantza» egunean.

*I.* **Lehengo egunean esan zidaten ume talde bat prestatzen ari zaretela.**

*T.* Bai, taldeko batzu ari dira lanean, duela hiru urte herriko ume guztiei dantzak irakasteko asmoa genuen. Berrehun eta berrogeitahamar apuntatu ziren. Ikusi genuen oso zaila zela hainbesterekin aritzea. Gero talde bat osatzea pentsatu genuen eta horiei ongi irakasten saiatzea.

Ume asko gelditu da ikasteko gogoz, baina denekin ezin dugu, nahiz eta guraso asko konforme ez gelditu gure jokaeraz. Guk uste dugu hori eskolako lana dela.

*I.* **Orain entzaioarekin jarraitu behar dutela eta elkarrizketa honi atera ematen diogu.**

**Ea, zuen asmoak betetzen diren, eta jarrai ezazue bide horretatik.**



# PIPERROPILAK

Lehenago pesta bezperan plazara etortzen ziren piperropil saltzaileak eta barkileroak, beren barkila–potea bizkarrean hartuta. Han ibiltzen ziren oihuka: «barkilero!, barkilero!, hamar zentimo tirada, beti erortzen da!».

Barkilo–poteak taparen gainean numeroak izaten zituen, halako ubalezko mingain bat izaten zuten, hartatik tiratu eta orratza zer numerotan gelditzen zen hainbeste barkilo izaten zen.

Piperropil saltzaileak kutxa antzeko bat izaten zuten, dena piperropilez betea. Kutxaren gainean kartak zabaldu edo erantsiak. Batatik hasi eta erregeraino. Karta bakoitzari laumeikoa jartzen zitzaion gainean. Denak osatzen zirenean piperropil saltzailea beste karta pare bat hartu eta nahasi–nahasi eginda kontatzen hasten zen esanaz: «bata... bia... hirua...» Hark esandako karta ateratzen zenean harretxentzat piperropila. Pazkoa baino pozago piperropila ateratzen zitzaiona, bere hura besoan sartuta han ibiltzen zen.

Gau batean piperropil saltzailea han ari omen zen oihuka eztarria urratu beharrean: «bat bakarra falta...! Hartan Joan Mari azaldu omen zen Torreko ertzetik plaza aldera. Bai azkar ikusi ere piperropil saltzaileak: — Atoz gizontxoa, atoz. Osatzeko bat bakarra falta zait, bat bakarra!

— Bat bakarra falta badun ni baño hobeki hago! Nik bi falta zetiñet!

(Joan Marik seme–alabak falta omen zituen ba).

Lehenago pesta eguerdiarteetan plazan ez zen izaten deus. Apustuak ere atsaldeetan jokatzen ziren. Mutilek goizetan piperropil biltzera ateratzen ziren etxeetara, sailka edo bakoitza bere borralde.

Ba zen beste ohitura bat ere. Baserrietan eta herrian ere bai, pestetan ezagun eta ahaideak bata bestea bixitatzera joatekoa, salda hartu bidenabar. Gizakiei ematen zitzioan piperropila ardoarekin eta emakumeei boladuen urekin. Boladuak izaten ziren lehenago holako aiergunetarako. Orain ez da ikusten... (harro–harroak, soskorraren antzekoak, zuri–zuriak ziren. Basora bota urari eta urtzen zen. Goxoa izaten zen).

Lehenago etxerik gehienetan izaten ziren piperropilak. Oraindik ere ba dira ohitura zahar honi eusten diotenak: Artxikoneko herrikoak, Bernabenak, Kamila Joanito Billartakoaren andrea eta gehiago ere bai. Zorionak!

PIPERROPILAK EGITEKO ERA

Hamar piperropil egiteko:

4 arraultze (hiru osoak eta baten gorringoa).

700 gramo irina.

500 gramo azukre gorria (integrala).

Royal 3 kutxarila (harrotzeko).

Kanela 2 sobre.

Anis ale batzuk edo kopa bat anixetu.

Gainetik arraultze azukretuarekin igurtzi eta konfiteekin apaindu.

Labean sartu ta herre.

On dizuela!

**ASTAITZAGAKO MIKELA**

# JOXPINAXI ETXEKO ERREGIÑA

Zer habil, kapazo haundi hori eskuan hartuta, Joxpinari?

— Hara gure Pantxika! Edo... Paki orain, bai. Beti bezala, Paki. Berehalaxe Santiburtzioak direla eta erosketa haundi xamarra egiteko asmoan. Senideak etorriki zaizkigu; mutilek ere norbait bilduko dute eta ba al dakizu nolako aldea den otordu batzuk prest edukitzea? Bakallo kazularen bat, txipirioiak, aragia saltsan eta holakoak; lehendik patxadan maneatu, hotzgailu edo frigoan sartu eta noiznahiko. Alde ederra, Paki!

— De acuerdo, Joxpinaxi. Berehalaxe ditun Santiburtzioak, bainan horrelako erosketa, neska? Qué barbaridad! Por Dios! Ze atrasoa, neska! Pestak eta hasiera sukalde zuloan? Ze esaten ari haiz! Hortarako entzun al dizkinagu elkarrekin hainbeste hitzaldi. «Emakumea gaur» «Emakumearen askatasuna» «Emakumearen eragina»... Nere ustez, hi ere modernizatu hintzan pixkoat behenik, neska! Eta... orain dela ehun urtetako gauzak esaten ari haiz? Berriz esanda ere... Qué atraso! Joas!

Eta aurretik holako misererea igaro ondoren, pesta egunean, ez al dun gehiago saiorik beharko?

— Begira, Pantxi... Paki.:

Pesta egunean, diana entzutean jeikiko naiz eta eguneko otorduari bultzada bat emanen diot. Badakizu esaera zaharra: «Goizean eltze hotsa, bazkaria berandu». Gero soineko berria jantzi. (etzen musu truke «bainan ez ote dut azaerrepolloa emanen? Arro xamarra egin didate. Soineko berria jantzi eta eguerdiko mezara joango naiz.

— Bainan, Joxepinaxi, atzeratua hago! Lehengo denboretan beharrezkoa etzen eta orain Santiburtzio egunean mezara? Gu gabe ere meza emanez diten bai! Por Dios berriz esanda ere! Qué atraso! Qué barbaridad!

— Egia, Paki, beharrezkoa ez da. Bainan fede mutur bat gelditzen zait murritza bada ere. Eta gainera lehengoari eutsi egin nahi diot. S. Juanen martxa entzun, dantzari eta txistulari talde dotorea ikusi, kanpoan diren herritarrei eskua eman... Ez dira hoiek eguneroko gauzak. Eta mesa nagusi ondoren gure elizataritik beherako ikuspegia ez da nolanahikoa, nere ustez bakarra da!

Gero plazan zerbait ikusi eta etxera joango naiz etxeko andrearen eginkizunetara.

Eta zu, Paki, nola moldatuko zara bada?

— Nola uste dun bada, Joxpinaxi? Hi bezela? Por Dios! Ez noski! Ez ditun gure aiton–amonen garaiak! Joas! Harritu ta uzten naun hire antigualkeriak.

Gure Niko ere mentalizatu dun eta. Eta bestela bila dezala egokiagoren bat.

— Nikoles–i izena aldatu egin al diozue?

— Umeak hasi itunan eta «Niko» esaten zionat orain!

Diana ohetik entzungo dinagu guk. Geroxeago jeikiko gaitun. Mutilek hartuko dizkiten dantzako arropak eta beren gisara konponduko ditun.

Gu meza ondoren jeiki eta apaindu; (biek «de blanko» aterako gaitun Nikok traje zuria eta gorbeta urdiña zetin eta nere fularra ere zerukolorea dun.

— Nolako Maritxo, halako Perutxo orduan, Paki.

— Plazakoa ikusiko dinagu eta denakin batera etxera. Entsalada bat eta aragi errea edo erositako zerbait ateratzeko zenbat denbora behar dun bada neska! Gainera orain denak belarzaleak, futinzaleak, linea zaintzaileak ditun. Eta hainbat aldiz etxeko lanetan laguntzeko esan, zertarako bada? De acuerdo, pestak ditun, bainan besteentzat? Bitartean etxeko andreak, edo hi bezelakoak denen neskame izan behar al diten?

— Aizu Pantxi–Paki. Ez ote da oso desberdina gauza?

Gure etxean ongi jan eta edan ondoren zera hasiko dira esaten:

— Nondik ekarri duzue bakailo hau?

— Gaurko aragia ez da nolanahikoa!

— Tolosakoa al zen tarta hau?

Eta zuk hemen ikusten duzun Joxpinaxi hau, artista eta gainera **etxeko erregina** bihurtuko da, ez neskame.

— Nork egin duen tarta edo gure etxean jan den aragia? Nik egin dut dana; ni ez naiz sukaldari aparta horietako bat. Bakarrik amodioz egin ditut gauza guztiak... Amodioak bihurtuko zituen «arte lana»Joxepinaxi arro arro jartzen zaizu halakoetan Paki! Hura izaten da hura askatasuna, emakumearen eragina eta emakuman jaurlaritza!

Denak pozik eta **etxeko erreginarentzat txalorik beroena.**

— Hau ezin asmatua, Joxepinaxi! Amen esan beharko dut. Zu hor eta ni hemen.

Marimune





# PESTAK, PESTAK UXATU KEZKAK ETA BETE TRIPAK

Kantaro, kantaro, kantaro, kantaro, kantaro, kantaro... Kandiko Tolatxenekoa eta Joxe Mari Joseaundina ezkila jotzen. Pun!, pun!, pun!... suziriak botatzen albientea. Musika herri guztitik. Pesta bezpera. Pestak direla! Urte guztian gogoan ditugun egunak. Pestaurrea: pestetarako ametsak egiten. Pestarleak espero ditugu eta... Etxeko zokoak ongi garbitu eta zer edo zer berria erosi ere bai. Pestak: denak aktore bihurtzen garen egunak: zezenean aurrean edo azpian, musikarekin saltoka, artadian jo eta ke... Urtero bezala, Joxe Oxpantonina, Agustin Bigera eta Puntzio Joseaundina aterako zaizkigu ardi hankak erakustera!

Eta tripe pesta ere bai. Etxetik asko asko ateratzen ez direnak hau egiten dute: tripa–pesta, alegia, nahikoa jan eta edan. Tripoa ongi bete. «Rejimen» zaudela? Ez estutu. Egun hauetan ahaztu behar da –rejime». Aieneko Joxe Mari Peruk ba daki nola egin «rejime»:

— Kafea eta kopa bat koñaka hartuko dituzu, Peru?

— Bai, kafeari nahas zaiozu koñaka. Medikuk esan zien koñakik ikusi ere ez egiteko. Eta kafeari nahasita ez dut ikusiko!

Lotarako lekurik ez duzula? Joan landara, artadira. Periko Zaldarrek ere hala egin omen zuen urte batean: «Goizaldera joan ninyuen artadira, lotara eta eguerdian esnatu eta eginahalak egin eta ez akordatzen non nengoen. Halako batean Oialde ikusi nien eta Oialde den lekutik ez dok ba erruti Leitze eta halaxe bilatu nien!».

Eta pestaurreko atxaureen pesta? Gurdian erremintak hartu eta ontzi konpontzen, pailasoarena egiten, operazioa egiten... eta Agustin Bigera oiloei lo harrarazten!

Atxaureak aitatu ditugunez gero ezin utziko ditugu iroteik aitatu gabe. Aurten eguraldi onak egin zituen. Jende asko atxauretu zen. Hi, ezagutzen al duk zein den hori? Hori holako duk. Eta gure atzekaldean hantxe izentatutako hori, atxauretzekoa! Eta horroko hori? Hori atxauretuta atxauretu gabe baino aiseago ezagutzen duk!

Agustin Bigera eta Joxe Oxpantonina ere ederrak eginak dira. Urte batean katez elkar lotu eta kandaduaren giltza harrika bota. Eta hola irago zituzten irotei guztiak. Tardoko herriko («Zirkuloko») balkobean sabutan ibili ziren, bat barrengo aldetik eta bestea kanpotik! Loa Tardoko herriko ikuiluan egiten zuten. Gau batean batek: hi segi zak haruntzago, eta besteak: hi segi zak haruntzago. Elkar ondoan zutelakoan, zera, mila kiloko zezena erdian zutela lotan!

Baina orain pestetan gaude eta hitz egin dezagun pestetaz. Zezenak bukatu dira eta eguerdiko apustuak hasi bitartean goazen hamaiketakoa egitera. A, bai, horroko gazta zaharra jaten ari diren zahar horietara goazen. Ikus dezagun zer dioten:

ARRAULTZE FRESKOAK

Pello Inaziobarunena hargina zen eta Leitzan eta kanpo–herrietan ere aritzen zen lanean. Herri batean lanean ari zela, Joxepa arraultze biltzailea, Leitzarra, joan zen Pellorengana eta galdetu zion:

— Arraultze freskoak nork dituen bai al dakizu?

— Lehengoan Monoko gizona zubitik errekara erori zen eta gerrietaraino sartu zen urean. Hartxek ditu arraultze fresko–freskoak!

DEUS ORDAINDU BEHAR AL DA?

Axintxio Olaberrikoa ittate eta ateraldi harrigarriak zituen gizona zen. Beti prest jendeari parra eragimarazteko.

Behin zibilek egur ikaragarria eman zioten kuartelean. Eta Axintxiok:

— ¿Hay que firmar el recibo?

— ¿Recibo de qué?

— De la paliza que me habéis dado!

Berriz atzera sekulan baino egur haundiagoa eman zioten zibilek!

Eta Axintxiok atetik ateratzean:

— ¿Hay que pagar algo?

Gaur ematen dituzten egur guztien erreziboak sinatu behar bagenitu sekretarioa hartzen al genuke!

ASTAITZ

# PESTTAK



«Aizu Miel Joakin ¿noiz dittuzue pestak?

Santiburtziotan.

— Ez diat ongi aittu ¿noiz?

Santiburtziotan.

— Ez da nonbait zeruan geiena mandatzen duena izen ori ez nian beinere attu».

Ala esaten zion Makolok gure attuna Ontsalunekoari Burgeteko ostatu batean biak au bere sal–erosketan arkitzen zirela periazala ta. Bazkaltzeko garaian jakiñe: ordun etzen izaten orain bezelako berri zabaltzerik ez ezparringik ez radio, kotxerik ere ez. Abere gañen joaten omen zien Burgeteraiño mendiz–mendi, beor salle beren beokakin atzetik zittuela.

Kontu au dela 120 urte izango dira ta ez da arritzekoa Santiburtzio nor zan ez jakitea. Baña guk yayo orduko bagiñekin santu au erromatarra zela ta gazte trebea, martirie eta abar. Orregatik pestak ere olako santuari (ez nola naikoa) zeizkion moduan egiten giñuzen. Alako **programa** beztelako bat aurretik etxe geienetan osatua izaten zen. Artoak yorratuk, belarrak sartuk zenbait etxetan urribelarrak ere bai.

Gizonak azinden lanak bere gain artzen zituzten bittartean; emakumeek etxean zer egiña izaten zuen. **Etxezuritzea zela, koltxobeak ittea** zela eta **lixue** ere bai.

Pesta aurreko astean lan bereziak izaten zien au da ogia ittea, ardi iltzea. Baserri geienetan ardia., erri aldean berriz artalderik ez giñun izaten da eskuz azitako axuri bat iltzen ginun. Pesta bezpera eromena izaten zen laun lantxo bazien naittenaiez egun ortan eegun ortan egin bear zienak. Ardia il, aurretik emandako argizariari lustrea atera, mendak bildu eta piporropillek egin. Ardi iltzea giñunean, tripe errekan ongi garbittu ondoren tripotxak egiten giñuzen txurik eta beltxak goxoaskik bai.

Gero lustrea atera baztar guziak dirdir egin arte, urrena menta mordo bat erratzan puntan lizte batekin lotu eta oazurpetik barrena txoko guziak irao. Gero obepe bakoetzean menta beltxa sortu bat paper baten gañean uzten giñun. Zer usai goxoa.

Lanok bukatzeako illunabarra izaten zen ta San Lorentzo aparia, ez



zen nolanaikoa izaten. Etxeko gizonak aide edo auzo etortzen ziren eta tripotxak jatea ekarrazten zien, ez tripotxak bakarrik aurretik eta atzetik «perakakin».

Gizonak berdinduxe zienen ta kunplimentu guzik egin da, asten giñen piporropillek egiten. Egin gabe ez gelditu nai da makiñebat amorrazio pasatzen giñun aik ezin errez goizalde arte.

Au izaten zen gure pesta aurrea. Da Santiburtzio eguna? Etortzen guziari piporropillekin gosari txikie. Eguerdi artea bazen piporropilla arrantzioakin. Eguerdia bazen ia etxe guzitan gutxi gora bera otordu au izaten zen. Ollo zopa – garbantzuk oliokin egin dakoak – ardikie edo axurkie – ollo egosia piper morroakin – gisadue – eta axuri edo ollasko errea. Gero txokoak betetzeko bizkotxada aparrakin (merengue) toki batzutan gazta.. .era (ta) kafea ta pattarra. Muturrek gorrittu ta plazara Apusturik baldin bazen trabesen bat egiteko arriskoa izaten zen. ta trebesen ondoren pelaie en askotan bai. Baña pestetako gauzek amabirgiñak arte irauten omendue ta biamonen denak aurretik bezela urrengo Santiburtzioak noiz allatuko zien zaie.

*ARTXIKONEKOAK*



# IZAN AL DAITEKE GAZTEA?



«Garrasi egin eta kexatzea besterik ez dakizue egiten», «zuek hitzegin asko hitzeginen duzue baina gero lanerako goxo gutxi» eta horrelako askotxo entzun ohi dira nonahi eta orduko, autobusean atso baten ahotik edota bere semealabetaz kezkatua dagoen guraso batek esanda.

Eta bai, gazteok kalean gaude, baina txarrena ez da kalean egotea detaile bezela. Zakarpoltsa ate ondoan uzten den bezela gaude gazteak zer egin (edo zertarako) ez dagutela.

Gazteek bizi dugun egoera eta arazoak hor daude (ikusten al duzue?), baina gauza bat argi bezain garbi azaltzen zaigu, hau da, gazteak ez gaudela konforme jasaten ari diren piperminez gainezkatutako saltsa honekin. Eta momentu honetan, errepika bezela, ikusten da esakuntza famatu hau: «gazte gara gazte ta ez gaude konforme» nola ez, motel!

Dudarik ez dago, gizakien bizitzan atalarik nagusiena gaztaroa dela; gaztarorik gabeko biziak, ba ote du zentzua? hori da gazteok galtzen ari garena! gure gaztedia galtzearekin batera gure herriaren nortasuna erre galtzen ari gara «gazteek pasatzen bait dugu», honela ba gazteen arazoaren muinara iristen gara. Zergatik den «pasotismoa gazteen arazoa?» «pasotismo» deituriko gazteen mugimenduak, ba du bere historia; hauen helburua sistema bat puskatu ahal izateko erabilia izan zen. Honek jarraitze du, baina beste helburu batetan finkatuz, herriaren dinamika jaraitu beharrean, beste «rollo» batzutan oinarrituz, droga (alkohola, tabakoa, e.a.); moda (jazkera, «pasotismoa») direlarik. Bi faktore hauek sistema kapitalista eta errepresiboaren harma izan daiteke. Hau harmatzat hartzen dugu, gazteek eta herri baten iraultza deusezteko erabilia delako.

«Pasotismoa» oso errutira joan gabe Leitzan bertan aurki dezakegu. Gazteok deusez egiteko ez dugunean, alkoholara eta drogara jotzen dugu. Lehenengo hau Leitzan faktore garrantzitsuenetariko bat izan daiteke.

Baina, zergatik jotzen dugu alkoholara? gure astialdian egitekorik ez dugulako. Zergatik herrian inor ez da gazteetaz arduratzen? guretzat garrantzizkoa da gauzak antolatzeko gazteen lokal bat edukitzea. Ad: diputazioak ez dira arduratzen. datu bezela Gipuzkoako diputazioak 110 milioi zituzten gazteen etxetan gastatzeko; ez zuen batere gastatu.

Baina, horrelako lokala bat egiteak diru asko suposatzen du. Antolaketaren prolema medioen prolema da, infraestrukturakoak eta ekonomikoak. Medioek antolaketa minimo bat eskatzen dute eta ez badago mediorik ez dago zergatik antolatu beharrik.

Guk ditugun arazo guztiak, ez dira bakarrik lokalan eta horrelako beste zenbait gauzetan finkatzen baizik eta gazte gehienek estudiatzen dugu, nahiko egoera txarretan, zeren eta, sistema kapitalistak ezarritakoheziera beren interesak mantentzeko da, hau da, gure gizartean, pertsonak dutenagatik baloratzen dira, eta ez ordea direnagatik. Gainera estudiatzea luxozko artikulo bat da, hau da, bakarrik dirudunek egin dezaketen zerbait.

Gaur egun, egoera dagoen bezela bi bide daude: estudiatu, edo, langabezian gelditu. Langabezian gelditzen direnek, oso egoera txarretan gelditzen dira.

Lehenengo esaldian esaten genuen bezela, «lanerako gogo gutxi» hitz horietan, ikus daiteke gezurra dela, normalki gazteek langabezian daudela ikusten dutenean, erre egiten dira, dirurik gabe ikusten bait dira, dirurik gabeko gazte batek gizarte honetan deusez egiteko ez bait du, orduan azaltzen dira «delincuentes juveniles» deiturikoak; hauek gizartean gaizkiikusiak dira. Azken finean gazte izatearen definizio berri bat bilatu behar genuke: gaztea sistemarentzat harriskutsua den pertsona da.

Epa gaztek, pestak hemen ditugula!

FIRMA: *BI GAZTE*

# DIARIO LEITZE»-TIK HARTUTEKO BERRIK




NEKAZARITZE: Urtabe ona yoan den urtekoa. Bai... majiñet gauze bildu diñea! Naparro guzie bi urten eunero baurrunek yanez eukitzeko hañe baurrun bildu omen hunan yoan den udazkenen. Hala esaten ziñenan biñipin lengoan easotear bate. Bai bai hala dun hala dun! Zea... Gorriztaran alde hoire aberastuxea izan behaiñ ba? Bai! nik attotenez ehunde alako pateta pille saltzen ai omen dittun.— Bai hoixe! asko baitzen gañea! hasi Muñotik eta Bordaberrin barrena. Bordaberrin yan'e pixkoat iñen diñea beño. — Jeee bai! Lesakenen... Aztitakoak beak'e pilleka izan ziñenean. Baita zean bertan'e... eee?... Atsotiten. — zea etorri zaian ba burure, lengoan zeakin eondu niñunan... Arroko Potxolokin eta, sekulan ez omen diñea haleko patetaik yan, eta auxo hartan denen izuerri zela esate ziñenan. La ospa! Yoantxeneko Patxikok'e yoan den berroei urte hontan eiñ ditton urribelarrik goxonak eiñ omen zetiñ. — konbertsazioa kanbiatzea dun beño iguel diñ, zeare atto iñeu ba... garai baten leitzeko neskak galtzekin edo bonbatxokin yoaten omen ittunenan ixtorlekure lanea... ta oaiñ berriz etzekiñet nola yoaten omen diela ta, aleie atto beharko omen littuzkeala sermoi latzak abade zaharra jubilatute ezpaleo. — Galtzik gabeee!!!... etzekiñ ongi. Ezittunake asko apuetuko. — Ez neska! pentsatzen al dun hoixe. Beño ze eiñ behar dion, horrek'e zerbatte esan behar ta!!! — Praxku Josehaundina're haserre eon behar liken ba? — Bai, zeba? — Santakruz aldeko belaze guzik zapaldu eta hankapetu omen zizkiñea. Ba omen zekiñ gañea zeintsu dien. — Baii!! batenbat or azalduko zaun eunen baten ordun, bizkarrezurra oker oker einda. — Landan'e arto asko irauli omen unan ba, yoan den urten? — Ah! bai, atto iñet bai... zea... Txopillok, Pontziok, Mikolaseneko senar-emaztek eta etzekiñet zeiñ gehiok manifetazioa eiñ behar dutela «Artadira ez! Artadira ez! Artadira ez! «Herri guziri oihuka eskatuz. — Hau yendea dao, ze esan ere etzekiñea ya!! — Ba al dakiñ ze atto'ten nik, Joxe benitonak zea ein behar omen diñ, lengo urteko pestetan, baakiñ, axuri paren bat faltatu derrepente, ta gehio errestoipe gelditto gizona! Baa, aurten ardibordan lo eiñez pastu behar omen zetiñ pesta eun guzik. Kontua besteik ez dun izanen neska? — Kontua? litt kena dun beño, ez nun bere arritze Izan'e gaur aitzen dienak attut Beno, yoan beharko iñet, gizona' ordu bitan lanea beharra iñet eta. - Bai neska! gu're eltzea suten utzi etorrik gattun de mottu beharko iñe Aizan!... Teexa espeazan pixko: Atrebentzia dun beño, zea atto iñ Maritxun alaba gaztea beteta daul: — Nik etzekiñet neska, ezkontz dela're atto iñet eta!! — Bai zea eske lengoan beakin topo egin niñ nan eta, bai iduittu nei aurpegi txu xamarra zeukela! Eztiñ ba beste zeik eta nabari... — Bai zea, oaiñ e tutzen zetiñea neska iñok nabaitze ez dittun modun. — Hala beharko'i bestela behintzat...!! Beno, barkaza settu beharko iñeu. — Urrenarte ba Aio Ixabeltxo, zurire. Lotsare emate diñ bai, ya ama beño haundioa ei de, Ixabeltxo esatea. — Beño, baa kin, betiko ohittera.

Hor eoneittok atzoko neskak hi Landaa yoan behar diu. Etzeudek he men. Goazen besteatea. Nik yinkas Hik Txuita? Niik... zeea... eee... bes teoi. Yoan ai porkulo hartzen hi! Yoa nai hi. Nun da Soro? Zea yoandok.. besteoi ittea. Hola yartzepa, eseite, t papere eskukin hartute... Hike ittepa Koño askoakik eh!! Ze ustepa zea! Zenbata Fermina? Uztak nik iñeit. Oixe attu nai nien hi. Oaiñ eztipa bate paatuko. Nai dokena eiñtzak hi. Ze esateek hik demono... aultzarmarioa!! Txokora yoan beaula. Noa Txokora? Ez, Oialdea yoan beaiu... gaur ean bear zetiuuu...!! «Erloju merke. Oso merke, hau mila peseta balio. Hau bi mila peseta bakarra» Hara hemen diu zea... Galdetzaiok zenbat balio dun beste katxarro horrek hi? Galdetzaiok eorrek. Soro goazemak demono pelma. Goazemak kopon! goazemak. Hik ze beak Auzmendi? Lengoa. Hik Txuita? Dize ke dizee... lengoa berrize! Hi hao auntze hi! Eonai ixilik motell, auntze oaindik!!! Jode! eztok entenditzen! Ez aldok ikusten hao? Aibadios! hemen diu falta giñune. Badiu badiu!! Non eosiik hi? Tolosako perin? Hiri ze inportazak! Hi? hau usaie botatzeo hi? Gozoa askiek hao. Ez alda hala Astibi? Pentsatzealdok!! Hi ahuntzen entrada patzen badiek Diskoteka yoanen gattok. Bale, eiñe zeok, goazen! Beño, ahuntze nik eamaneite. Ze esan nahi dok hi bi ahuntzekin yoane haizela, ta ni batekin aleie. Hi, hao auntze hi? Eonai ixilik atto iñeikea ta. Zu, ekarri bi entrada? Ez ez ez, keba keba! aun-

tzena Sorok patuko do. Ze hartu beazue? Whiski ean beaiu!! Hi te, ahuntzentzat... ze? Ahuntzei, kuberdie pipermiñekin. Hi? Earra neok hi!!! Kopon! hoi pieza hi? Beitzaiok nola nabari zazkion punttek hi? Kabrestoik gabe eoneek eh? Ezetz! beitzaiok beitzaiok beitzaiok, beitzaiok ba audo!!! Ze inportaik pa! Hi tontoa haiz motell! Zazpik dittok, goazemak ahuntzei diana eakustea.

...Aurtengo larru zarrak ...aurtengo larru zarrak... diruiññendu. Hi, hoi katxarro zeon beste hoi hi? Eh hi? hoi katxarroa zeon hi? Mimi sol mimi solfami solfami rere... Yakiñezue ba? Guk bai, beño ahuntzei eakutsi behar tzeiu oañ.

TXOKOKO HARGAIÑA: Akordatzen alaiz, Tomax Barun beti makillekin, ta beste hark nola esan tzion: «oye tío, ke pasa no! Tu no etxas el palo nunka oke?» eta Tomaxek «Yo palo? No!, yo sienpre kon palo. Hue deskojonatzea! Ta, Eskubikin da etortze en hoi? Bai gizona! bizardun hoi?... antiejukin de?... Tipo katxondoat motell? Ezalitzen han zean... Ezaldakik beste tronpetisteak nola etorri zen, ta goizeko hamarrak aldea Txokoko hargaiñen ze zirkoa montatu zuen yoan den urten? Ah bai! oantxe etorri zetziek burure... gañea deputamadre yotzen tzien. Han huen ba, beste nik esateten katxondo hoire. Biek montatu zikean da kriston parodie! Bai motell! ta ezaldakik behin Patok nola esan zien: «Eth tu, ahora un tango». Ta katxondo horrek: «Como que tongo? aqui de tongo nada, esto va enserio». Ze parrak in giñuzen!! ta ze yende pille bildu zen azkeneako! Auskalo zenbat! Geo nei sonbreroa kendu te zapela pastu zikean. Akordatzen nak bai! ta, geo txanpana ean giñien. Eske hue izandu huen...!! Ezetz!? Halekoak gutxitan ikusteittok eh? Joe... pentsatze aldok!!!

**Zikilintres**

# LEITZAN ERABILTZEN DIREN ESAERA ZAHARRAK

— Errotan beta, bidean trota.
— Maiatzeko txitak eriak.
— Maitasunik ez duenak, saminik ez.
— Jakin nahi konta nahi.
— Etxea beti esken.
— Ur joanari ez egin presarik.
— Gu baino hobeki dagoena, ez dago gaizki.
— Letraduak badaki, probatuak hobeki.
— Idiak min, eta gurdiak soinu.
— Izena haundi, izana txiki.
— Ez izan ta bai uste, sasipeko masuste.
— Txori bakoitzari, eder bere kabia.
— Azitik dator landarea.
— Usteak, erdia ustel.
— Beste egitekorik ez zuenak, bere etxeari su eman zion.
— Ez da surik ke gaberik, ez kerik su gaberik.
— Etxeko sua etxeko hautsaz estali.
— Josteta luzeak, negar gura.
— Goxoagoa beti, auzoko ogia.
— Lan eginez gutxi, lanik egin gabe deusez.
— Alferkeria askoren hondamendia.
— Erristari haundia, langile ttikia.
— Dakienak ez dakienari erakustea.
— Berak ez dakiena, besteei erakusten.
— Bi etxetako zakurra, goseak hil zuen.
— Atsedena, lanaren saria da.
— Besteen gaitza, begian lo.
— Besteen oinazeak, guri min gutxi.
— Bi maikoan mina eta zortzi–maikoan trapua.
— Osasuna, munduko ondasuna.
— Gero da bero.
— Ez da beharra bezelakorik.
— Zartagia sutan.
— Gari ona kutxatik saltzen da.
— Bizi nahian, bizia galdu.
— Lotsarik ez, eta beharrik ere ez.
— Gustoko lekuan, aldaparik ez.
— Juan debalde, goseak hil zuen.
— Gaizki esanak barkatu, ongi esanak gogoan hartu.
— Besteen etxeko lanak beti eginak.
— Merken garestie.
— Zer ikusi, hura ikasi.
— Ezkontza pobrerik ez, hileta aberatsik ez.
— Nahi ez duenarentzat, afaria prest.
Ixilik dagoenak, ez dio gezurrik.
— Zaldizkoakin ari du.
— Arrain haundiak, ttikia jaten du.
— Animalien artean ere, lapur haundia nagusi.
— Hotz aina bero, Jainkoak ematen du.
— Joan behar duenak, egotea kalte.
— Mendiko egur iharra, alferren indarra, eta pobreen arrazobea, berdin (alferrik galtzen dira).
— Zentzudun gizona, garaiz ixiltzen da.
— Odolkiak, ordainekin.
— Jostorratza baino haria luzeagoa behar du.
— Azarkina baino zailagoa da.
— Hedea baino zailagoa da.
— Bertan dira famak.
— Herreroaren etxean zotza burruntzi.
— Leitza haundi, Iruñen pare; Madrilen ondo–ondoan.
— Besteren ogitik, zopak egin.
— Bat, Martin tarrak.
— Bi, Martin ipurdi.
— Hiru, sakela bete diru.
— Lau, dardina bakalao.
— Bost, kakatan plost.
— Sei, silen eseri.
— Zazpi, etxea bete zapi.
— Zortzi, etxea bete zorri.
— Bederatzi, ikuilure joan, eta behia jetzi.
— Hamar, eltzea, beta banabar.
— Hamaika, katua lukainka.
— Hamabi, mahaiera bi begik.
— Hamahiru, attunak amona nahi du.

**Rosa Sestorain**




# LEITZAKO V. KULTUR ASTEA

Orain lau urte, 1979. urtean, sortu zen Leitzako Kultur Astea. Mikel Deuna Ikastolako kultur batzordearen iniziatiba izan zen eta, noski, pentsatu gabe atzetik halako muntai handirik ekarriko zuenik. Bestela...

Bi ziren helburu nagusiak: kultur mailan posibilitate berriak eman jendeari eta, horrekin batera, herrian alaitasun giroa zabaldu (hain luze egiten da Ihauterietatik Festak arteko tartea...).

Baina hasera hartan asmoa hiru edo lau gauzatxo bakarra egitea bazen ere, gaur egun aste bete–bete bat bihurtu zaigu. Eta kalitate haundikoa gainera, egunkari eta irratietan eman dizkioten tarteetan ikustenden bezela. Ez gara bat ere txaubinistak Euskal Herrian egiten den onenetakoa dela esaten badugu.

Puntu honetara ailegatuz, herriko erakunde eta elkarteei esker egin ahal izan dela bultzapen hau garbi esan behar da. Baina Udaletxea gehiago busti behar da, eh?, kontzejal jaunak...

Bost Kultur Aste hauen ebaluazioa egitean ezin dezakegu ahaztu Leitzatik pasa diren zenbait izen: Itoiz, B.Lertxundi, Imanol, Oskorri, Euskal Herriko Laukote Nazionala, Leidor abestaldea, Santa Cecilia orkesta sinfonikoa, Taberna organujolea, Mario Gabiria, Eneko Landaburu, Intxixu, Amuritza, Lopategi, Larragako joterak... Euskal Herrian punttan dauden artistarik ospetsuenetakoak, noski.

Dena ez da ona izan, ez, gehienbat organizazioaren aldetik. Lan haundia eta jende gutti; zein bikote ezaguna, ezta? Guri ere halaxe gertatu izan zaigu, ba. Asko eta ongi egiten asmatzeko aurretik indarrak ongi neurtu behar izaten dira, eta hori ez da gure espezialitatea, ez horixe. Heldu den urtean jende gehiago bilduko gara eta horrela ez da inolako oztoporik izanen. Ejem.

Bat da beste guztien gainetik organizadoreei kezka haundia ematen diguna: ekintza guztietan parte hartu nahi duen leitzar gaixo horren presupostua. Astea bukatu eta poltsa zula tu ote zaizun begiratu behar izatea e: da, ba, gauza polita. Halaxe da, bai Baina nola moldatuko gara 1.000.00( pezetako kostoak ordaintzeko Diputazioko laguntza 15.000 eta Udaletxekoa 20.000 pezetakoak direnean? Zerga gutti ordaintzen dugu nonbait...

Zuei dagokizue Leitzako Kultur Astea ona den ala ez esatea. Gure aldetik gauza on asko egin daitekeela ikusten dugu. Seigarrena hobea izanen al da? Seguro baietz.

*Joan Mari Beloki*

**Hotel Basa-Kabi**
*Restaurante, habitaciones, SNACK BAR*
**Jai zoriontsuak opa dizkizue**
*ALTO DE LEITZA Tel. 510125*

MANDRILES
MI «IEXBI» S.C.L.
Jai zoriontsuak opa dizkizue
FABRICA: BARRIO ESTACION S/N TELEFONO 510212
LEITZA NAFARROA

Cerramientos de balcones y terrazas fabricacion y colocacion de ventanas y puertas de aluminio
ALUBAN
Aluminios Barañain
Poligono Industrial de BARAÑAIN
Tel. 570059 BARAÑAIN
Tel. 510088 LEITZA
M. ULACIA. NAVARRA

SOCIEDAD KORNIETA
Jai zoriontsuak opa dizkizue
LEITZA

*HARATEGIA-URDATEGIA*
J. A. URKIOLA
Especialidad en carne debuey
Jai zoriontsuak opa dikizue
*Tel. 510467 LEITZA*

# ERRIKO LEKU–IZEN BATZUEK



Azkeneko urte oietan gure inguruan aldaketa aundiak badira beste nun nai bezala eta ainbeste urtetan izan diran oiturak eta bizi–moduak, galtzen ari dira betirako. Gure mendien eta tokien izenekin orrelaxe gertatzen da; batzuk galdu egin dira, beste batzuk aldatu, eta askok bi edo iru izen ba dituzte. Askotan, Leitzen, bordak, txabolak, basoak eta abar, nagusiaren edo maisterraren izena artzen dute eta gero beste eskutara iraotzen badire, izena aldatu egiten dute eta ala gertatzen izenak aldatuak gelditzen dira.

Orain, emen azaltzen ditut Leitzen bildutako izen batuk. Zerrenda luzea ez egiteagatik emen, landare, zugatitz, abere, pixti eta egazti etatik datozen izenak jaso ditut.
Abita, agiñeta, altzadi'ko kaskoa, altzegi, altzate, altzu, alzatea, aritzatari, aritzaundi, aritzmalkor, aritzmendi, aritzmotxeta, aritzmotzeta, auzogaztañeta, belarrain, belarzañeta, belarzinketa, belatsoatakogañe, elordi, galarreta, garagarza, gaztaintxikita, gaztañeritxabal, gorostieta, gorostilepo, gorostimuño, intxuse, intxusti, intxusu, ipuru, irategi, irupagoata, irupagota, irañeta, liñoputzuta, lizarla, lizarraga, lizarzelaieta, miltxo, orbeleta, otazuri, otekolarrea, otemotz, pagoaundie, pagobakarra, pagolle, pagomiñe, pagomuñape, pagozelaieta, sagarbeltza, sagarmia, sagarrako erreka, sagasti, sagastaldi, sarasa, sarasain, urrizpilleta, zortziaritzeta, zumarreta, zumearreta, zumetan borda.

Arranolde, arranoata, axerimalkor, azeri barruti, azerizuloata, beileku, belatxiotako leizea, belekabita, beordain, erleta, erroizte, gurdikarakoleta, karakoleta, malkorran erleta, mandaerreketa, mandobidetan, mandotxixeta, mandozuri, miztortegieta, okillin, otsoan erreka, putretako arrobie, putretako gañe, urdola, usategieta, zapelatzan arrobie, zikiron arrobie.

Badakit beste izen asko izango dirala, baita ere emen jarritakoak agian ez ondo egotea, orregatik edozein zuzenketa edo aldaketa ongi artua izanen da.

**Joxe Miel**

# Gure abestaldeak

Jeiki gure abestaldea Gales–ko Llangollen–a doa.
Llangollengo abesbatzaldia, nazioartekoetan garrantzisuenetakoa da. Horregatik gure abeslariek, azkeneko hiru hilabete hotan egunero ari dira lanean.
Partitura asko dira berriak. Bainan betiko gureak, «Ama begira ezazu» «Goiko mendian», «Oles ezkonberriak» eta abar, Galesen entzutea polita da nere ustez.



Gure herrian beste abestaldi bat sortu da. Oraingoan umeak dira abeslari. Zuzendaria Jose Jabier Aizkorbe, gure apaiza. Hasi berriak badira ere oso ongi ari dira.

Herriko Jaunartze egunean eta eliz nagusian egin zuten lehenengo saioa. Geroztik hara eta hona dabiltza.

Leitze herriko izena oso errutiraino zabal dezatela opa diegu gure abeslaritxoei.

*Marimuru*

# LEIZA ETA ARESOKO FORUAK

Aspaldi xamar, paper ilun eta zikin bat ailatu zitzaidan nere eskuetara. Ez zen geiegi entenditzen eta gainera latinez zegoen.

Job santuak baino pazintzi aundiagorekin asi nintzen aztertzen eta, piskaka piskaka, poliki poliki, nondik edo andik itz bati bestea erantsiz, arek esan nahi zuena jakitera iritsi nintzen. Leyza eta Aressoko Foruen baieztapen edo konfirmazioa zen berak zekarrena.

Ainbeste aditzen dugu gaur egun Foru itz ori. Or dauzkagu gure Politikoak Foruak gora eta Foruak beera diotelarik era bat.

Zer dira Foruak? Zertarako dira? Bada makina bat politiko jakintsu galdera oriei erantzun zorrotza eman lezaiekeena.

Bainan ez da politikarako ordua, gure pestak dira. Erri aundi onetako pestak. Ortaz, uxa ditzagun gugandik eztabaida eta burrukak. Marimur zubi azpiko sorginek sor ditzatela, akelarre ero, bero eta zoro batean poztasun eta pake gozoa dakarten zurrunbil eta aizesorgin zoragarriak.

Eta Goikoerrotako antaparan morkor gaueko ametsak garbitu ondoren, eguneko programa ikustean, zuen bista noraino obeagotu den jakin nai baduzue, ara or alde aldeko probatxo bat:



Jesukristo, gure Jaunaren izenean. Nik, Santxo, Jaungoikoari esker Naparroako errege, Foru egiztapen (edo konfirmazio) au egiten diet Leyza eta Aressoko auzoei, jakin dezaten ala oraingoek ala gerokoek, gogoak ematen zidalako, eta ortaz, askatasun osoaz eta nigandikako borondatez.

Foru eskubide au ematen diet Leyza eta Aressokoei: zerga ematera beartuak dauden gizasemeek, urterako lau xueldo ordainduko dituztela, eta Maiatzaren azkeneko astean emango dituztela. Baita bizimodu oneko andre alargunek ere. Andre alargunen batek, zerga osoa dagokionen bat bere etxean balu, zerga osoa ematera beartua dagoen edozein gizonek aine ordaindu bear baitu. Bainan zerga osoa ordaintzea dagokion gizonik beraien etxeetan ez duten andre alargunei, auxe agintzen diet: Lau alargun orietakoek gizon bati dagokion aine eman bear dutela. Emakumeek Maiatzean eman dezatela beraien zerga, Maiatzean ematen bait dute napar emakumeek.

Ara Leyza eta Aressoko auzo bakoitzari, naiz gizon naiz emakume, agintzen diodana: zerremak umeak egingo balitu, umatzen den urte bakoitzean, txerrikume bana eman dezaten San Andres egunean eta ez Maiatzean.

Leyzan eta Aresson larrerik izanen ez balitz, Leyza eta Aressokoek eraman ditzaten beraien zerriak nere Erresuman larrea aurkituko litzakeen tokira, eta ez dezaten orretarako kinta izeneko zergarik pagatu.

Bainan beraien mendietara beste zerriak ekarriko balituzte, zerga pagatuz ekar ditzatela.

Esanak esan, au agintzen dut: ez dezaioten eman zintzotasunez goien aipatutako zerga ezik, beste ibarjaun (merino) edo gizon inori.

Goien idatzitako Foru au ematen diet Nik, Santxo Naparroako Erregeak, Leyza eta Aressokoei eta ondorengo guziei, niganako zintzotasuna eta... gordetzen direlarik gizaldi guzien gizaldietarako.

Iruñen, Urrian, 1192 Urtean, Ni Santxo Naparroa eta Arabako errege

nintzelarik, Pedro Iruñeko Gotzain (Obispo), Fernando Lizarrako Ordezkari, Zangotzan Mikael Lerateko nere esku; Almoravit Ayuar, Kasedan Martinez Subizako; Artaxonan Pedro Martin Leerko; Ergan Semeno Ayuardo; Dicastillon Gomiz Garzeizko; Erriberrin Furtun Baztango; Caparroson Martino Subizako; Amayurren Garzia Orizko; ... Pedro Lanone; Gasteizen Pedro Remirez; Corellan Garzia Periz Morietako; Lagardian Martin...; Cahiteguin Fernando Arabako.

Naparroako Santxoren erregealdian, nik, Fernando artxidiakono, Naparroako Erresumako idazkariak idatzi nuen, aginduta, aurrerakoan bete daitezen.

*Ion*


*LIBURUTEGIA KIROLAK*
**EUZKO**
Articulos de regalo, material deportivo, ect.
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 510054
1800

*CAFETERIA PASTELERIA*
**NEKANE**
1800
Jai zoriontsuak opa dizkizue
**LEITZA**

**carrocerias LAGUNAK**
*CHAPA Y PINTURA*
Jai zoriontsuak opa dizkizue
*LEITZA*
1800

**ARAKINDEGIA**
*JATETXEA*
**Jai zoriontsuak opa dizkizue**
1800
*Tel. 510052*

1800
**ZURGINTEGIA CARPINTERIA TOMAS ALKOZ**
*"MARTICO"*
**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE**
***LEITZA***

*COMERCIAL* **ALDAYA**
Electrodomesticos, articulos de regalo. Autorradios, Suelos Sintasol y tapison.
1800
Tel. 510357
Jai zoriontsuak opa dizkizue
LEITZA

900
**Ignacio Arrarás**
Bodegón - Vinos, Sidra y licores
Cervezas El León
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 51 03 53

**Hermanas Gómez**
900
Comercio de tejidos
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Teléfono 51 01 30

*BAR* **LEITZATARRA**
*Desayunos, cazuelitas, pinchos calientes, ect.*
*Irekita goizeko 7etatik.*
*Abierto desde las 7 de la mañana.*
**Jai zoriontsuak opa dizkizue**
*Tel. 510352*
1800

1800
**BAR RESTAURANTE TXOKO**
FONDA PENSION COMPLETA
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 510277

**LANDA** *TABERNA*
1800
Giro jatorra musika ederra
**Jai zoriontsuak opa dizkizue**
**LEITZA**

1800

# «LOREA»

Limpieza en seco
Artículos de regalo

**Jai zoriontsuak opa dizkizue**

**Teléfono: 51 03 82**

---

# carrocerías LEIZA

1800

REPARACION DE CHAPA
PINTURA DE AUTOMOVILES

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Carratera a Leizalarrea — LEIZA — Teléfono 51 04 60

---

**Bar Asador**

# MENDIZABAL

1800

Especialidad en chuleta y besugo asados

Cafés - Vinos - Licores

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoyen, 22 — LEIZA — Teléfono 51 01 28

---

# Jesús Buldain

1800

Carniceria y charcuteria

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Teléfono 51 01 67

---

BAR-RESTAURANTE

# SAGASTI

*JATETXEA*

1800

Jai zoriontsuak opa dizkizue

**Teléfono: 51 00 27**

---

1800

**CONSTRUCCIONES**

## ARIZTIMUÑO HERMANOS

**Obras en general y reformas**

**Jai zoriontsuak opa dizkizue**

**Telf.: 51 03 74** — **LEIZA**

---

**Martin Lizarraga**

900

Carniceria y Charcuteria

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Teléfono 51 02 83

---

900

**Casa Azpiroz**

Merceria y tejidos
Confección
Forrado de botones
y hebillas

Teléfono 51 02 46

---

## TALLER RODRIGUEZ Y ERASO

Reparación y engrase en general
de automóviles

1800

**Jai zoriontsuak opa dizkizue**

Tel. 51 02 59
**Calle Elgoyen, 15**

---

900

**El Cine Parroquial de Leiza**

Jai zoriontsuak opa dizkizue

---

900

**JOSE Mª. HERNANDORENA HUARTE**

**Ferreteria — Drogueria**
**Artículos regalo**
Transporte

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Teléfono: 51 00 55

---

1800

# ASTIZ

# Librería y Papelería

Material escolar y Deportes

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarren 28 — Teléfono domicilio 51 04 05 — LEIZA

---

1800

# Garage Leiza

**(J.E. Ceballos)**

Reparación y engrase en general, del automóvil
**Calle Elbarren, 77**
**Teléfono 51 04 66**

**Pié de foto página 3 (Plazaola)**

---

## MIGUEL BARRIOLA

1800

**Almacén de vinos y licores**
**Distribuidor de Insalus**
**Leche y batidos Gurelesa**
**Cervezas San Miguel**

Jai zoriontsuak opa dizkizue



10.800

**zorionezko festak deneri**
**nafarroako aurrezki kutxa**

**felices fiestas**
CAN
CAJA DE AHORROS
DE NAVARRA

SARRIÓ
COMPAÑIA PAPELERA DE LEIZA, S.A.

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Herritar eta bisatari guztiei

Programa impreso en cartulina MARTELE y papel MARTELE EMIR de Sarrio

